

Metalezko "soporte" bat Euskal Herriko paisaia ezberdinetan jartzea.

Zertarako?

-Selfiak egiten diren toki asko arriskutsuak izaten dira, eta jendeak istripu larriak eduki izan ditu. Horregatik, euskarria jarrita arazo garrantzitsu hau ekidingo genuke.

-Bestalde, jende askok argazkiak kalitate txarrekoak ateratzen ditu, eta ez da beti kameraren arazoa. Soporte hau kokaleku egokian jarrita, argazkiaren kalitatea hobetuko genuke, eta politagoa geldituko litzateke.

-Soporte hauek Euskal Herrian soilik egongo dira, bertako paisaia polit eta ospetsuenetan. Soporteak QR kode bat edukiko du, zuzenean asmakizunaren web horrian sartuko dena. Web horrian argazkiak igotzeko aukera egongo da, komunitate bat sortzeko helburuarekin.